


Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2022). Familia tradizionalaren kritika Eider Rodriguez eta Julen Ribasen *Santa Familia* komikian / Crítica á familia tradicional no cómic *Santa Familia* de Eider Rodriguez e Julen Ribas. In Blanca Ana Roig, M<sup>a</sup> Isabel Soto eta Marta Neira (koord.) *Cómic e Literatura* (409-432 or.). Edicións Xerais de Galicia. ISBN: [978-84-1110-174-5](https://doi.org/10.1007/978-84-1110-174-5).



**5.21. Familia  
tradizionalaren kritika  
Eider Rodriguez eta Julen  
Ribasen  
*Santa Familia* komikian<sup>42</sup>**

Ainhoa Urzelai-Vicente  
(MHLI ikertaldea, UPV/EHU)

**Laburpena:** Eider Rodriguezek idatzi eta Julen Ribasek ilustratutako *Santa Familia* (Euskal Herriko Ikastolak, 2017) komikian familia tradizionalari egindako kritika aurki dezake irakurleak, betiere ironia eta umorez zipriztindurik. Hiru kidez osatutako familia bat aurkezten zaigu, eta barrunbeak arakatuz, bizi dituzten gorabeherak agerian jartzen dizkigute. Istorio honetako protagonistak sekretu bat gordetzen du, eta berau kontatzeak familian eragingo duen eztanda zein eskalakoa izango den jasoko du irakurleak. Nerabezaroan ohikoa den identitate krisia bizi du Nora protagonistak, zeinak gurasoek eraikitako habia utzi eta bere bidea egin behar duen. Laburbilduz, familiari eta gurasotasunari (begirada ez idealizatu batetik) begiratzeko aukera eskaintzen du komikiak; baina

42. Artikulu hau Eusko Jaurlaritzak babestutako MHLI ikertaldearen baitan burutu da (US21/15). Egileak MINECOren doktorego aurreko beka du.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2022). Familia tradizionalaren kritika Eider Rodriguez eta Julen Ribasen Santa Familia komikian / Crítica á familia tradicional no cómic *Santa Familia* de Eider Rodriguez e Julen Ribas. In Blanca Ana Roig, M<sup>a</sup> Isabel Soto eta Marta Neira (koord.) *Cómic e Literatura* (409-432 or.). Edicións Xerais de Galicia. ISBN: [978-84-1110-174-5](https://doi.org/10.1007/978-84-1110-174-5).

---

#### CÓMIC E LITERATURA

---

horrez gain, egileek edertasun kanonei edo harreman motei erreparatzeko parada ematen dute ere.

**Hitz gakoak:** familia tradizionala, identitatea, nerabezaroa, nortasunaren bilaketa, umorea.

**Abstract:** Analysis of *Santa familia* comic (Euskal Herriko Ikastolak, 2017), written by Eider Rodriguez and illustrated by Julen Ribas, in which it is fai nail criticism of the traditional family, held at all times dende humor and irony. The authors deeply into the private life of this family composed of three members and report the adversities that live the protagonists in their day to day. The protagonist of this story garda un segredo e desvelalo will cause big nail explosión in family life. Nora, quen ten who leave the niño creado poles her parents and comezar her own camiño, lives inmersa in the identity crisis tan characteristic of adolescencia. In summary, this comic ofrece stooe the opportunity to aim at the family and fatherhood or motherhood dende unha mirada non idealized. Pero, moreover, the authors dan a ocasión to analyze the canons of beauty and the various affective relationships existing in society.

**Keywords:** adolescencia, search for identity, traditional family.

### **Familia, erakunde santua**

Liburuko kontrazaleko laburpenak dioenari jarraikiz, “Familia da emanda datorren gauza bakarra. Ez lagunak, ez bizimodua, ez ingurua, familia baizik”. Familiarekin batera ematen ditugu lehen pausoak, haren aurrean ahoskatzen ditugu geure lehen hitzak eta familiaren babespean hazten eta hezten gara. Familia izan ohi da gizakiaren lehenengo gotorlekua eta erreferentzia nagusia. Familia baten baitan jaiotzen gara, eta jaio aurretik esleituta datorkigun familia horrek instituzio baten gisara funtzionatzen du. Erakunde hori baina, ez da munduko beste instituzio gehienak bezala: sortzez emanda etortzeaz gain, harpidetzak bizi guztirako irauten du. Ezin

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2022). Familia tradizionalaren kritika Eider Rodriguez eta Julen Ribasen Santa Familia komikian / Crítica á familia tradicional no cómic *Santa Familia* de Eider Rodriguez e Julen Ribas. In Blanca Ana Roig, M<sup>a</sup> Isabel Soto eta Marta Neira (koord.) *Cómic e Literatura* (409-432 or.). Edicións Xerais de Galicia. ISBN: [978-84-1110-174-5](https://doi.org/10.1007/978-84-1110-174-5).

---

COMENTARIOS CARA Á FORMACIÓN LECTORA

---

diogu familia horri uko egin, ez behintzat lotura horiek apurtu osteko ondorioak pairatu gabe. Dena den, batzuetan, munduan eta jendartean bere burua aurkitu nahian dabilen nerabeak uko egin behar die berak hautatu gabe emanda etorri zaizkion ereduak. Sarritan, gurasoek egindako habia utzi eta mundu zabalera jo behar izaten du gazteak, bere neurri naiz eredu propioen arabera bizitzeko. Familia sustengua eta babesia izan daiteke haurarentzat, baina aldi berean, jokabide batzuk betikotu ditzake, eta itogarria izan liteke nerabearentzat, nor bere bidea egitea galarazi baitezake. Halakoetan, nola gauza liteke familia-haustura? Nola landu daitezke familia barneko gatazkak, liskarrak eta talkak? Nola adieraz litezke iritzi kontra-jariak? Nola ahoskatzen dira asimilatzen zailak diren egiak? Komiki honetako protagonistak sekretu bat gordetzen du, eta berau kon-tatzeak familian eragingo duen eztanda zein eskalakoa izango den jasoko du irakurleak.

### ***Santa Familia* komikia**

Eider Rodriguezek idatzi eta Julen Ribasek ilustratutako *Santa Familia* (Euskal Herriko Ikastolak, 2017) obrak Xabiroi komiki aldizkarian atalka argitaratutakoa biltzen du eta Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria eskuratu zuen 2018an. Berrogeita zortzi orrialdeko literatur lan honek, izenburuak iradokitzen duen moduan, familiaren gaia dakarkigu. Zehatzagoak izatearren, esan dezagun familia tradizionalari egindako kritika aurkituko duela bertan irakurleak, betiere ironia eta umorea erabilita. Obra eskutan hartu eta hasieratik bertatik antzeman dezakegu narrazioaren tonua. Kristautasunaren ikur den Familia Santuari keinu egiten dio azaleko irudiak, baina Maria, Jose eta Jesus haurtxoaren ordeztan, istorio honetako protagonista eta gurasoak ageri zaizkigu aldare batean. Gaineratu behar da nahiko era barregarrian irudikatuak ageri direla horiek. Erdian, eta kaliz baten gainean eserita, alaba ageri zaigu telefonoari begira, gurasoak alboan dituela. Amak ilea kizkurtzeko erru-

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2022). Familia tradizionalaren kritika Eider Rodriguez eta Julen Ribasen Santa Familia komikian / Crítica á familia tradicional no cómic *Santa Familia* de Eider Rodriguez e Julen Ribas. In Blanca Ana Roig, M<sup>a</sup> Isabel Soto eta Marta Neira (koord.) *Cómic e Literatura* (409-432 or.). Edicións Xerais de Galicia. ISBN: [978-84-1110-174-5](https://doi.org/10.1007/978-84-1110-174-5).

---

#### CÓMIC E LITERATURA

---

loak daramatza eta ispilu txiki baten laguntzaz, ezpain haragitsuak margotzen ari da. Betaurrekodun aita berriz, guztiz burusoildutako gizon lodi samarra, freskagarri bat edaten ari da latatik zuzenean. Ez hori bakarrik, familiako maskota pixa egiten ari da izkina batean. Dakusagun moduan, errepresentazio hori erabat aldentzen da erlijio kristauan ikustera ohituta gauden irudikapenarekin. Istorio honetako protagonista nagusia Nora da, gurasoekin eta maskotarekin Euskal Herrian bizi den neska gaztea. Bere barne-bidaiaren berri izango dugu komikian zehar, izan ere, nortasunaren edota bere bidearen bilaketari buruzkoa da istorioa. Era berean, protagonistak bere gurasoekin duen harremanaz mintzo zaigu komikia. Nora partaide den familia nuklear edo klasikoa nola sortu zen kontatzen da obraren hasieran. Bere gurasoak aurkezten zaizkigu eta baita elkar nola ezagutu zuten ere. Ama Sorkunde Garai da, dietista, eta bere dietetika gune propioan egiten du lan. Fededuna da eta badirudi “kristau ona”-ren ereduari jarraitzen diola. Batetik, auzoko haurrak katekesian hezten ditu gaez; eta bestetik, behartsuei janaria ematen die. Gainera, pasarte batzuetan ikus daiteke arrosarioa daramala lepotik zintzilik. Aita berriz, Teodoro Edo, Rio Munin (Ekuatore Ginean) jaio eta gaztetan Euskal Herrira etorritakoa da. Horrek ere badu loturarik elizarekin, izan ere, bertan mantenu-lanak egiten zituen eta hango abesbatzan kantatzen zuen garai batean. Horrela egin zuten topo Noraren gurasoek. Ikus daitekeenez, gurasoek elizarekin duten lotura hasieratik antzematen da.

### **Dena ez da perfektua**

Komikiaren hasieran, familia perfektua dela iruditu liezaioke irakurleari. Hala ere, kontaketak aurrera egin ahala, konturatzen gara ez dela irudi lezakeen bezain perfektua eta hutsune zein arazo zenbait egin behar diola aurre. Familia perfektuaren edo bizitza eredugarriaren ideia hori hainbat binetatan jartzen da zalantzan. Edo bestela esanda, komikiko pertsonaiek osatzen duten familia bes-

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2022). Familia tradizionalaren kritika Eider Rodriguez eta Julen Ribasen Santa Familia komikian / Crítica á familia tradicional no cómic *Santa Familia* de Eider Rodriguez e Julen Ribas. In Blanca Ana Roig, M<sup>a</sup> Isabel Soto eta Marta Neira (koord.) *Cómic e Literatura* (409-432 or.). Edicións Xerais de Galicia. ISBN: [978-84-1110-174-5](https://doi.org/10.1007/978-84-1110-174-5).

---

COMENTARIOS CARA Á FORMACIÓN LECTORA

---

te familiak bezain inperfektua dela ikus dezakegu komikian zehar. Bikotea ezkondu osteko elkarbizitza nolakoa den deskribatzen zaigu hasieran. Narratzaileak dioskunez, maiz bakarrik sentitzen dira elkarren ondoan egon arren. Bitxia da Teodoren erresilientzia edo bere bikote harremanari buruz egiten duen hausnarketa: “Ez gara kexatuko. Gure gurasoen garaian okerragoa zen, orduan ez zegoen telebistarik eta bata bestearekin hitz egitera behartuta zeuden” (7. or.). Bikotekidearen konpainia aski ez eta maskota bat erosten dute, nahiz eta konturatzen diren hori ere ez dela nahikoa; horregatik, haur bat munduratzeko saiakeratan hasten dira, horrek hutsune emozionala bete eta zoriona ekarriko dielakoan. Hurrengo pasartean Sorkunde ama ageri zaigu poz-pozik komunean eserita, haurdunaldi testa gainean duela eta Jaunari eskertzen *bere sabelean fruitua hazten uzteagatik*. Narratzaileak, ironia handiz, miraria gertatu zela aipatzen du eta horrek alaitasuna, batasuna eta ondasuna ekarri zuela etxera. Irudiek baina, beste errealitate bat erakusten dute: Batean Nora negarraldi betean ageri zaigu gurasoak atzean dituela, aita haizagailuarekin aupegiari, eta ama berriz, botaka egiteko poltsa horietako batekin. Gurasoak gainezka eginda daudela antzeman dezake irakurleak irudi horien bitartez. Beste bineta batean, gurasoak eztabaidatzen ageri dira, Noraren irakasle batengatik. Jarraian datorren binetan, alabari erosi beharreko ondasun garesti batzuk aipatzen dira. Beraz, esan dezakegu binetok haur bat izateak dakartzan desabantaila edo zailtasunak jartzen dituela agerian: negarrak eta haserrealdiak, nekea, bikotekideen arteko eztabaidak eta gastu ekonomiko altuak besteak beste. Jarraian datorren atalean aipatuko ditugu Norak bizi dituen barne-gatazkak, baina aurrera dezagun protagonista nerabe honen bizitza ez dela perfektua eta kristautasunak predikatzen duen eredu normatibotik aldentzen dela. Familiak terapeuta holistiko batengana jotzen du, hain zuzen, inperfektua delako eta bizi dituen zailtasunei aurre egiteko kanpo aditu baten laguntza behar duelako. Dena den, gurasoak haserre biziari irtetzen dira bertatik, terapeutak arazoaren jatorria gurasoengan jartzen duelako. Besteak beste, egungo guraso askori gertatzen zaiena azpimarratzen du terapeutak: seme-alabek

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2022). Familia tradizionalaren kritika Eider Rodriguez eta Julen Ribasen Santa Familia komikian / Crítica á familia tradicional no cómic *Santa Familia* de Eider Rodriguez e Julen Ribas. In Blanca Ana Roig, M<sup>a</sup> Isabel Soto eta Marta Neira (koord.) *Cómic e Literatura* (409-432 or.). Edicións Xerais de Galicia. ISBN: [978-84-1110-174-5](https://doi.org/10.1007/978-84-1110-174-5).

---

#### CÓMIC E LITERATURA

---

etxea uztean bikotea bakarrik geratzen da eta bikote-harremanak ez badu ondo funtzionatzen, hutsune hori agerian geratzen da seme-alabak joatean. Komikian ikusten denez, gurasoek familia hondoratzea egozten diote Norari eta terapeutarekin hitz eginda ere, Norarengan jartzen dute fokua. Alaba atsekabeturik ageri zaigu terapia ostean, baina bertan ikusitako mezu batek (“egizu, eta beldur bazara, beldurtuta egizu”) adorea ematen diola pentsa dezakegu. Esan dugun legez, pertsonaiek etxean bertan gertatzen diren gatazkei egin behar die aurre, baina kalean gertatzen diren eta gizartearen baitan bizirik dauden gatazka zenbaiten isla dakarkigu komikiak. Ildo horretan, arrazakeriarekin lotutako bineta bat iruzkindu nahiko genuke. Bertan Sorkunde eta Teodoro paseatzen ageri dira, eta kalean dauden bi emakume haiengatik gaizki esaka ari direla ikus dezakegu. Bestalde, narratzaile orojakilearen hitzek ere azpimarra bat merezi dute: “Sorkunde harro zegoen gizon beltz batekin zegoelako, arrazista ez zela erakustea atsegin zuen, eta igandetan bereziki ikusgarri jartzen zen guztiek begira ziezaieten. Teodorok ez zuen kexarik” (6. or.). Gure ustez, azken aipu horrek badu mamirik jarrera arrazistak lantzeko<sup>43</sup>. Kalean presente dauden gatazkez ari garela, ez dago soberan aipatzea *euskal gatazka* deritzogun horren oihartzuna aurki dezakegula bineta batean (11. or.). 1977ko Pasaia ageri zaigu bertan eta zubi baten azpian *amnistia* hitza ageri da gorritz margotua, azpian Eduardo Txillidak 1977an diseinatutako Amnistiaren Aldeko Bartzordeen ikurra duela.

### Nortasunaren bilaketa

Arestian aurreratu dugun moduan, Nora alabak arazo eta buru-haustek ditu. Paratestuan datorren irudi batean protagonista arrainontzi txiki batean igeri egiten ageri zaigu, alboan bi arrain dituela,

---

43. Arrazistak dira ere Teodoro eta Sorkundek tuberkulosiaren oraingo agerpena etorkinen etorrera oldeei egozten dieneko pasartea.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2022). Familia tradizionalaren kritika Eider Rodriguez eta Julen Ribasen Santa Familia komikian / Crítica á familia tradicional no cómic *Santa Familia* de Eider Rodriguez e Julen Ribas. In Blanca Ana Roig, M<sup>a</sup> Isabel Soto eta Marta Neira (koord.) *Cómic e Literatura* (409-432 or.). Edicións Xerais de Galicia. ISBN: [978-84-1110-174-5](https://doi.org/10.1007/978-84-1110-174-5).

---

COMENTARIOS CARA Á FORMACIÓN LECTORA

---

zeinak metaforikoki hitz eginda, bere gurasoak izan daitezkeen. Norak izu aurpegia du eta badirudi arrainontzitik ihes egin nahi duela. Irudi hori aurrerago dagoen pasarte batekin lotu dezakegu, Nora igerilekuan dagoenarekin hain zuzen. Narratzaileak jakitera ematen digunez, protagonista gazteak nora doan eta zein norabide hartu behar duen galdetzen dio bere buruari etengabe. Gaineratzen digunez, ordura arte bidean aurkitutako oztopoek ez diote norabidea eten, eta neurrira egindako bide hori zuzen egin du. Orain baina, arrainontziaren mugak estuegiak egiten zaizkio gazteari, batzuetan itolarria sentitzen du... eta ondorioz, eztanda egiten du. Piszinara sartzen den momentuan, barneko binetetan kontaktzen zaigu kanpoan gertatzen ari dena, baina kanpoko binetek berriz, pertsonaiaren barne mundua erakusten digute. Metaforikoki bada ere, pertsonaiak nola sentitzen den kontaktzen zaigu: batzuetan itolarria sentitzen du eta ezinegon hori igerilekuan dauden animaliekin (marrazoekin) irudikatzen da. Arestian deskribatutako pasarte horrek kontraste egiten du komikiaren amaiera aldera ageri zaigun itsasoaren irudiarekin (47. or.). Bertan protagonista arrain txiki eta mota anitzekoez inguratuta igeri egiten ikus ditzakegu; espazioa argia eta irekia da, hau da, ez dago hormigoiz edo kristalez mugatuta. Bide batez, gogora dezagun protagonistaren izenak berak norabidea eta galdera adierazten duela, eta beraz, Noraren zalantzei erreferentzia egiten diela, hau da, etengabeko bilaketa horri. Zerbaiten bila ari da pertsonaia nagusia, bere bidea egiten, helmuga zein den zehazki jakin ez arren. Agian bizitza hori baita, helmuga zehatzik gabeko (barne-)bidaia bat; eta bizitza berriz, bidaia horretan aurrera egitea.

### **Non jaio, hala bizi**

Aurreko atalean aipatu dugun moduan, komiki honetan familia baten (Norarena) eguneroko bizimodua deskribatzen da, baina horrez gain, Teodoro aitaren haurtzaroa eta gaztaroa jakitera ematen zaigu. Bineta horien artean erkaketak eginez, irakurleak bi pertso-

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2022). Familia tradizionalaren kritika Eider Rodriguez eta Julen Ribasen Santa Familia komikian / Crítica á familia tradicional no cómic *Santa Familia* de Eider Rodriguez e Julen Ribas. In Blanca Ana Roig, M<sup>a</sup> Isabel Soto eta Marta Neira (koord.) *Cómic e Literatura* (409-432 or.). Edicións Xerais de Galicia. ISBN: [978-84-1110-174-5](https://doi.org/10.1007/978-84-1110-174-5).

---

#### CÓMIC E LITERATURA

---

naien gaztaroko bizimoduaren arteko antzekotasunak aurki ditzake, baina batez ere, munduaren punta batean ala bestean jaiotzeak berez dakartzan ezberdintasunak jartzen dira agerian. Teodoro Edo aitari dagokionez, narratzaileak diosku 1960an jaio zela Rio munin eta zazpiki jaiota ere, batere federik gabe utzi zutela zapata kutxa batean<sup>44</sup>. Gaztea zela, Malabora bidali zuten egurketari aberats baten etxera: Agirre Jaunaren etxaldera. Bertara joan aurretik, irakurleak ikus dezake nola esaten dion aitak bizitza ez dela gozoa eta gogor egin beharko duela lan hutsaren truke. Horrek kontraste egiten du Euskal Herrian jaiotako Noraren haurtzaroarekin, izan ere, etxe eroso batean bizitzeaz gain, gurasoek erosten diote behar dituen ondasun guztiak. Teodororekin jarraituz, hainbat binetatan ageri zaigu lanean eta horietako batean narratzaileak diosku etorkinen artean haien jatorriaren arabera hierarkia zegoela. Interesgarria da ohartaraztea egurketari aberatsa euskalduna dela eta zaldi ganean kontrolatzen dituela langileak. Etxaldean bazkaltzen ari direnean ere hierarkia bat antzeman daiteke, izan ere, Teodoro gaztea bapo jaten ari den euskaldunari begira ari baitzaio, etorkizunean haren lekuan egoteko desioz. Komikian aurrerago eginda, bere sorlekua utzi eta Teodoro Pasaia heldzen dela ikus dezakegu. Aita eta alabaren nerabezaroa parez parez jarrita, bikain ikusten da geografikoki oso aldentuta bizi diren pertsonen errealitate diferentea. Norari ordenagailua edo behar duena erosten diote gurasoek. Teodorori ordea, bestelako mezua ematen diote: bizitzan zerbait lortzeko gogor lan egin behar da.

### Eredu anitzak ikusgai

Ez genuke aurrera egin nahi komiki honek ikusgai jartzen duen eredu aniztasunari erreparatu gabe. Ugaritasun hori hainbat arlotan

---

44. Bere izenaren parte den *Edo* juntagailu horrek abandonuaren ideari keinu egiten diola esan genezake. Abandonatu zutenez, Teodoro izan liteke bere jatorrizko izena, baina litekeena da jaiotzean beste izen bat jarri izana edo izenik jarri gabe abandonatu izana.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2022). Familia tradizionalaren kritika Eider Rodriguez eta Julen Ribasen Santa Familia komikian / Crítica á familia tradicional no cómic *Santa Familia* de Eider Rodriguez e Julen Ribas. In Blanca Ana Roig, M<sup>a</sup> Isabel Soto eta Marta Neira (koord.) *Cómic e Literatura* (409-432 or.). Edicións Xerais de Galicia. ISBN: [978-84-1110-174-5](https://doi.org/10.1007/978-84-1110-174-5).

---

COMENTARIOS CARA Á FORMACIÓN LECTORA

---

nabari da, adibidez, harreman afektibo eta sexualetan. Norak gurasoekin duen erlazioaz arestian hitz egin dugu, eta Sorkunde/Teodoro senar-emazteen arteko harremanaz ere zertxobait aurreratu dugu aurreko ataletan. Hainbat binetatan bien arteko enkontru sexuala aurki dezakegu grafikoki adierazia (42. or.), baina hori ez da enkontru bakarra. Komikiaren amaiera aldera, Nora eta haren lagun Danielaren artekoa irudikatzen zaigu (45. or.). Aipatutako errepresentazio horiek azpimarragarriak iruditzen zaizkigu, ez direlako oso ohikoak euskarazko HGLn. Gorputz biluziak ageri zaizkigu hemen, naturaltasun osoz errepresentatuak. Bide batez, goraiatzekoa deritzogu protagonistaren harreman homosexual hori ez egitea esplizitu hitzen bidez edo garrantzi berezia ematea behin eta berriz aipatuz, maiz egiten den moduan; izan ere, eredu bat normalizatu nahi denean, ez dago “anekdota” edo “berezitasun” gisa esplizituki tratatu beharrik, beste eredu bat gehiago balitz bezala irudikatzearekin aski dela uste baitugu. Bestalde, obra honetan eredu normatiboetatik at dauden gorputzak ageri dira eta horri erreparatzea interesgarri deritzogu. Igerilekuan adibidez, pertsona lodiak zein argalak ageri zaizkigu biluzik. Biziki interesgarria iruditzen zaigu ironia handiz aurkezten zaigun gurasoak aukeratzeko katalogoa. Klase ertaineko aita eta ama mota ugari ageri zaizkigu, arraza eta tipologia fisiko zein psikologiko ezberdinetakoak, klasikoak zein modernoak, guztiak 18 urteko garrantiarekin. Gainera, gurasoak modu askotara konbina daitezkeela adierazten digu katalogoak: bi amez osatutakoa, aita bakarrekoa, aita eta ama batek osatua eta abar. Mintzagai izan dugun eredu aniztasun horrek komikia aberasten duela iruditzen zaigu eta irakurle gazteari (eta oro har, irakurle goiari) jendartean dagoen aniztasuna jartzen diola erakusgarri. Azkenik, atal honekin amaitzeko, paisaia linguistikoan edo komikian presente dagoen hizkuntza aniztasunaz hitz egin nahiko genuke, labur bada ere. Euskaraz idatzitako telefono mezu, plaka, kartel edo iragarki publizitarioez gain, latinezko eta euskarazko otoitz edo kantuak aurki ditzakegu, baina baita ingelesez eta gaztelaniaz idatzita dauden kartelak ere.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2022). Familia tradizionalaren kritika Eider Rodriguez eta Julen Ribasen Santa Familia komikian / Crítica á familia tradicional no cómic *Santa Familia* de Eider Rodriguez e Julen Ribas. In Blanca Ana Roig, M<sup>a</sup> Isabel Soto eta Marta Neira (koord.) *Cómic e Literatura* (409-432 or.). Edicións Xerais de Galicia. ISBN: [978-84-1110-174-5](https://doi.org/10.1007/978-84-1110-174-5).

### Testuartekotasuna *Santa Familia* komikian

Aztergai dugun komikiak lotura ugari gordetzen ditu beste testu batzuekin (*testu* hitza bere adiera zabalenean hartuta). Zinema-ko pertsonaia ezagun zenbait agertzen dira, literatura unibertsaleko pertsonaiak, bideo-jokoetako pertsonaiak eta abar eta abar. Testuartekotasun hori liburuaren hasieratik bertatik antzematen dira, izan ere, lehen esan dugun moduan, erlijio kristauaren ikur den Familia Santuarekin egiten baita lotura liburuko azalean bertan. Irudi bibliko horrez gain, azpimarragarriak dira Noraren aitak soinean daramatzen kamisetak, irakurle gaztearentzat aski ezagunak diren Superman pertsonaia, Batman edo Super Mario Bros bideo-jokoko txanpinoi berdea aurki baititzakegu besteak beste. Esanguratsua da oso bineta batean ageri zaigun *Erastunen Jauna* liburuko (eta pelikulako) Gollum pertsonaiak adierazten duena. Mintzagai dugun komikian, Nora telebista ikusten ari da besaulkian botata, ama egongelan sartu eta neskatoa atzetik besarkatzen duen arte. Alabari “nire altxorra zara” esatearekin batera, ia-ia haren gainera botatzen da ihes egiten utzi nahi ez balio legez. Ondoko binetan, Gollum pertsonaiak telebistako pantaila osoa hartzen du eta “nire altxorra” ahoskatzen duela ikus dezakegu. *Erastunen Jauna* ezagutzen duenak jakingo duen legez, J. R. R. Tolkienek asmatutako pertsonaia horrek nortasun anizkunaren arketipoa betetzen du, hau da, nortasun onbera erakusten du batzuetan, baina bat-batean, bere alderdi malefikoak menperatzen du. Ondorioz, batzuetan Frodori laguntzen dio eta harekiko zintzo eta leial mantentzen da (laguntzaile papera jokatzeko du). Baina bestetan, haren misioa arriskuan jartzen du (eta beraz, antagonista edo aurkari funtzioa betetzen du). Gogora dezagun Gollumek Mordorrerako bidea erakusten diela Frodo eta Sam-i, bertan erastuna suntsi dezaten; baina noiz edo noiz alderdi malefikoak menperatzen du Gollum eta arriskuan jartzen ditu beste bi Hobbit lagunak. Ondorioz, konfiantza zalantzan jartzen dute behin baino gehiagotan. Rodriguez eta Ribasen komikira itzuliz, iruditzen zaigu ama Gollumekin pareka dezakegula, eta ez soilik biek ahoskatzen

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2022). Familia tradizionalaren kritika Eider Rodriguez eta Julen Ribasen Santa Familia komikian / Crítica á familia tradicional no cómic *Santa Familia* de Eider Rodriguez e Julen Ribas. In Blanca Ana Roig, M<sup>a</sup> Isabel Soto eta Marta Neira (koord.) *Cómic e Literatura* (409-432 or.). Edicións Xerais de Galicia. ISBN: [978-84-1110-174-5](https://doi.org/10.1007/978-84-1110-174-5).

---

COMENTARIOS CARA Á FORMACIÓN LECTORA

---

дутен “nire altxorra” horrengatik. Esan dezagun neurri handi batean amak ere laguntzaile eta aurkari funtzioak bete ditzakeela alabarekiko erlazioan. Batetik, Norari sostengu ekonomiko zein emozionala eskaintzen dio, baina era berean, alabari itomen sentsazioa sorrarazten dio eta nola edo hala, bere nortasun propioa garatzea eragozten dio. Liburu ezagunez ari garela, ezin aipatu gabe utzi pasarte batean Norak aldamenen duen Jonathan Swift idazle irlandarraren liburu famatua, *Gulliverren bidaiak*. Atal labur honi amaiera emateko, esan dezagun euskal irakurle goarengandik (behintzat geografikoki) gertuago dauden erreferentzia artistiko-literarioak ageri direla, adibidez, “Maitia, nun zira” euskal abesti herrikoia.

### Azken hitzak


Ikusi dugun moduan, komiki ausart honetan aurkezten zaigun familia ez da perfektua, edo beste familia guztiak bezain perfektua da. Gatazkak dituzte, hala haien artean nola nork bere buruarekin. Barne-gatazka handienak Nora protagonistak bizi ditu: gurasoen interesek eta bereek ez dute bat egiten eta beraz, beldurrez eta ezjakintasunez bada ere, gurasoek haien neurrira eraikitako habia utzi eta bere bidea egiten ikasi behar du. Eider Rodriguezek eta Julen Ribasek erakusten digute, umorea eta ironia erabiliz, batzuetan leherketa txikiak behar ditugula gure bidean aurrera egiteko. Bere bide propioari ekin behar dio Norak, baina baita gurasoek ere, izan ere, maitatzea joaten uztea ere bada. “Orain arte ikasitakoa desikasi behar dut (...) formazioa deformazioa delako” (48. or.), irakur dezakegu komikiaren amaieran. Lan honek ederki irudikatzen du gurasoek seme-alabengan eragin dezaketan gehiegizko presio eta kontrola, eta horrek guztiak duen eragina pairatzen duenarengan. Azkenik, esan dezagun komikiak jendartean dagoen aniztasuna erakusten digula: harreman afektibo-sexualetan, hizkuntzaren erabileran edo gorputz ereduetan.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2022). Familia tradizionalaren kritika Eider Rodriguez eta Julen Ribasen Santa Familia komikian / Crítica á familia tradicional no cómic *Santa Familia* de Eider Rodriguez e Julen Ribas. In Blanca Ana Roig, M<sup>a</sup> Isabel Soto eta Marta Neira (koord.) *Cómic e Literatura* (409-432 or.). Edicións Xerais de Galicia. ISBN: [978-84-1110-174-5](https://doi.org/10.1007/978-84-1110-174-5).

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

Urzelai-Vicente, Ainhoa (2022). Familia tradizionalaren kritika Eider Rodriguez eta Julen Ribasen *Santa Familia* komikian / Crítica á familia tradicional no cómic *Santa Familia* de Eider Rodriguez e Julen Ribas. In Blanca Ana Roig, M<sup>a</sup> Isabel Soto eta Marta Neira (koord.) *Cómic e Literatura* (409-432 or.). Edicións Xerais de Galicia. ISBN: [978-84-1110-174-5](https://doi.org/10.1007/978-84-1110-174-5).



**Crítica á familia tradicional  
no cómic *Santa Familia*  
de Eider Rodriguez  
e Julen Ribas**

Ainhoa Urzelai-Vicente<sup>45</sup>  
(Grupo de investigación MHLI, UPV/EHU)

**Resumo:** Análise do cómic *Santa Familia* (Euskal Herriko Ikastolak, 2017), escrito por Eider Rodriguez e ilustrado por Julen Ribas, no que se fai unha crítica á familia tradicional, realizada en todo momento dende o humor e a ironía. Os autores profundan na vida privada desta familia composta por tres membros e relatán as adversidades que viven os protagonistas no seu día a día. A protagonista desta historia garda un segredo, e desvelalo causará unha grande explosión na vida familiar. Nora, quen ten que deixar o niño creado polos seus pais e comezar o seu propio camiño, vive inmersa na crise de identidade tan característica da adolescencia. En resumo, este cómic ofrécelle ao lector a oportunidade de mirar a familia e a paternidade ou a maternidade dende unha mirada non idealizada. Pero, ademais, os autores favorecen a análise dos canons de beleza e as diversas relacións afectivas existentes na sociedade.

---

45. Este artigo enmárcase dentro do grupo de investigación MHLI financiado polo Goberno Vasco (US21/15). A autora posúe unha bolsa predoutoral de MINECO.

Testu hau behean zehazten den liburu-kapitulua argitaratu aurreko bertsioa da:

